



Arartekoaren 2021R-1796-20 Ebazpena, 2021eko uztailaren 13koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zaio berrikeras dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etete bat, uste baita prestazioen titularrak bete duela ustez bete ez zuen betebehar bat eta eska daitekeen ardurarekin jokatu duela.

Aurrekariak

1-. Herritar batek abiarazitako kexa izapidetzeko onartu zuen Arartekoak. Horren bitartez, kexagileak erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbidek bere diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eten izanarekin.

Enplegu-erakunde autonomoak bere prestazioen ordainketa eteteko arrazoia (2020ko abuztuaren 22ko 2020/REV/040173 etete-ebazpenean jasotakoa) 147/2010 Dekretuaren 12.1.i artikuluan aurreikusitako ez-betetzea izan da, hau da, administrazioari ez laguntzea.

Zehazki, Lanbidek ulertu zuen kexagileak ez duela behar bezala (eta agiri bidez) azaldu zergatik dauden 6 pertsona erroldatuta bera bizi den etxebizitzan. Ebazpenean honako hau adierazten da: *"no ha aportado la distribución de la vivienda mediante documento oficial o declaración jurada de esa distribución por parte del propietario, al no figurar en la nota simple del Registro de la Propiedad presentada. En la actualidad figuran empadronadas 6 personas y no es posible determinar las unidades de convivencia"*.

lido horretatik, erakunde autonomoak, aldez aurretik, entzunaldi-izapide bat igorri zuen. Horren bidez, Jabetza-erregistroaren Ohar Soila aurkezteko eskatu zitzaion, eta, era berean, zehazten zen, etxebizitzaren banaketa dokumentu horretan zehazten ez bazen, etxebizitzaren espazioen banaketari buruzko dokumentu ofiziala edo jabearen zinpeko aitortpena aurkeztu behar zela.

Kexagileak bere kexa-idatzian zioenez, entzunaldi-izapidearen fasean dagoen dokumentu bat aurkeztu zuen (erregistro-zenbakia: 2020/153633), etxeko gelen banaketa zehazten zuena. Arartekoak ziurtagiri horretarako sarbidea izan du, baina bertan ez dira zehazten erantsi diren dokumentu zehatzak. Hain zuzen ere, interesdunak azaldu du beste pertsona bati (etxe osoaren errentariari, hain





zuzen ere) azpialokatzen dion gela batean bizi dela; azken hori beste gela batean bizi da, eta bere semea beste batean; azkenik, adierazi du laugarren gela batean jatorriz pakistandarra den herritar bat bizi dela, eta kexagileak ia ez du harremanik harekin.

2020ko irailaren 9an, kexagileak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen etete-ebazpen horren aurka, eta prestazioak berriro ordaintzen hasteko eskatu zuen. Berrito, ziurtagiri honetan ere —Lanbideren 2020/254185 erregistro-zenbakiarekin— errekurtsoaz gain aurkeztu den dokumentazio zehatza jasotzen da; nolana ere, kasu honetan, kexagileak bere idatziarekin batera aurkeztu zuen dokumentazioa jaso zuen errekurtsoan. Horrela, ondorioztatu daiteke, errekurtso-idatziaz gain, bizikide guztien erroldatze-ziurtagiriaren kopia bat eta eskuz idatzitako aipamen txiki bat aurkeztu zituela. Azken horretan adierazi zuen ez zituela ezagutzen bere etxebizitzan erroldatutako pertsonetako 4 — pertsona horien izenak, abizenak eta identitate-zenbakiak jaso zituen—.

2-. Aurkezturiko kexari behar bezalako izapidea emateko, erakunde honek Lanbidek zuzendari orokorrari zuzendutako informazio-eskaera bat bidali zion; horren bidez, erakunde horrek kexagilearen etxeko logela bat azpialokatzen duenari aipaturiko dokumentazioa (etxean erroldatutako pertsonen buruzkoa zein interesdunak aurkezturiko dokumentuak behar bestekotzat ez jotzeko arrazoiari buruzkoa) eskatzeko duen legezko oinarriari buruzko informazioa eskatu zen.

3-. Lanbideko zuzendari nagusiak xede horretarako egindako txostenaren bidez, Lanbidek honako hau adierazi zuen:

“2020ko apirilaren 20an, errekerimendua egin zitzaion XXX XXX titularrari, hainbat agiri aurkez zitzaion, besteak beste, jabetzaren ohar soila, etxebizitzaren banaketa jasotzen duena, eta, halakorik aurkeztu ezin izanez gero, banaketa horren dokumentu ofiziala edo etxebizitzaren jabearen zinpeko aitortpena aurkez zezan.

2020ko abuztuaren 22an, ebazpena eman zen, eta, horren bidez, erabaki zen prestazioa aldi baterako etetea, eskatutako dokumentazioa epearen barruan aurkeztu ez zelako.

(...)

2020ko irailaren 4an, berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, eta bertan hainbat argudio aurkeztu zituen. Horien arabera, errekurtsogilearen iritziz, ez zitzaion laguntza eten behar. Hala ere, legea argia da, agintzen baitu





dokumentazioa 10 eguneko epean aurkeztu behar dela eta ez dira onartzen baieztapen zehaztugabeak, hala nola ez dakiela zer bizikidetz-unitate dauden bere etxebizitzan, edota etxebizitzaren banaketa zehatza zein den.

Errekurtsogileak alegatutako arrazoen artean, etxearen banaketa entzunaldi-izapidean aurkeztu zuela dio. Hala ere, aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, egiaztatu daiteke aurkeztutako jabetzaren ohar sinplea eta errolda epez kanpo aurkeztu direla. Zehazki, jabetzaren ohar sinplea 2020ko ekainaren 22an aurkeztu zen, eta erroldak 2020ko urriaren 20ko data du (epez kanpoko jarduketa erabat).

(...)

Argudioak nahikoak dira Lanbidek laguntza eteteen zuzenbidearen arabera jokatu duela ondorioztatzeko.

Geroago, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2020ko azaroaren 22ko Ebazpenaren bidez, prestazioak 2020ko irailaren 10ean berrabiarazi ziren, eta zegozkion atzerapenak ordaindu.”

Beraz, beharrezkoak diren egitatezko eta zuzenbidezko elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:

Gogoetak

1-. Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eten ditu, ez duelako aurkeztu epearen barruan dokumentazio jakin bat. Etenaldi horren ondorioz, kexagileak ez zuen diru-sarrerarik 2020ko abuztuan, irailean eta urrian zehar. Hala ere, azkenean, ordainketa berrabiarazi zen arren, ez zaio ordaindu abuztuari dagokion zenbatekoa. Era berean, etenaldia zenbatu egingo da, prestazioak berritzeko egunaren aurretik betebeharren beste ez-betetze bat gertatuko balitz, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen (azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatua) 28.1.e) artikuluan aurreikusitako iraungitzearen ondorioetarako.

Gogoeta horiek egin aurretik, gertakarien segida osoa argitzeko asmoz, aztertu beharreko jarduketa bakoitza denboran kokatu behar da, bai prestazioen titularrak egindakoak, bai enplegu erakunde autonomoak egindakoak:

-2020ko apirilaren 20an, Lanbidek kexagileari eskatu zion aurkez zezala etxebizitzarekin loturiko dokumentazio desberdina; besteak beste, etxean bizi





diren pertsona guztien errolatze-ziurtagiria zein Jabetza-erregistroaren Ohar Soila edo etxebizitzaren banaketa eta gela bakoitza erabiltzen duten bizikidetza-unitateak azaltzen dituen dokumentua.

-Une honetan, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, pertsonen mugikortasuna mugatu zen¹, administrazio-epeak eten ziren² eta administrazio gehienen arreta publikoa itxi zen; Lanbideren eta Jabetza Erregistroaren bulegoak barne.

-Administrazio-epeak ez ziren berrabiarazi 2020ko ekainaren 1era arte³ eta Bilboko 1. Zenbakiko Jabetzaren Erregistroak aurrez aurreko arreta berrabiarazi zuen normaltasunez 2020ko ekainaren 4an⁴.

-2020ko ekainaren 22an, kexagileak bizi den etxebizitzaren Jabetza-erregistroaren Ohar Soilaren kopia bat aurkeztu zuen Lanbideren bere bulegoan. Horretaz gain, etxeko logela bakoitzeko bizikidetza-unitate bakoitzak erabileraren inguruan ematen zuen azalpena ere aurkeztu zuen. Interesdunak eman duen informazio hori ezin da berretsi, izan ere, egitatezko aurrekarietan adierazi den bezala, bulegoak une horretan igorritako ziurtagirian ez da jasotzen aurkeztu ziren dokumentu zehatzak.

-Lanbideko zuzendari nagusiaren abuztuaren 22ko ebazpenaren bidez, enpleguko erakunde autonomoak interesdunaren prestazioen ordainketa eten zuen, ez zuelako aurkeztu etxebizitzaren banaketari buruzko dokumentazioa eta, hori dela eta, ezin zuelako zehaztu interesdunaren bizikidetza-unitatearen osaera. Ez dira beren-beregi aipatzen ez errolatze-ziurtagiria ez aurreko entzunaldi-izapidean jasotako gainerako dokumentuak; hortaz, ondorioztatu daiteke hori izan zela aurkeztu ez zen dokumentu bakarra.

-2020ko irailaren 9an, kexagileak berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zuen aipaturiko ebazpenaren kontra. Errekurtsuan azaltzen du zergatik ezin izan duen aurkeztu ohar soilaren kopia bat entzunaldi-izapidean aurreikusitako 10 eguneko epean. Arrazoi horietako gehienak alarma-egoeran zehar eta horren

¹ Osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuaren 7. artikulua (pertsonek zirkulazio askea mugatzeari buruzkoa); horrekin, administrazio-epeak eten ziren.

² Bigarren xedapen gehigarria. Prozesu-epeak etetea.

³ 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera luzatu zen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 9. Artikulua bidez.

⁴ Ikus 2020ko ekainaren 4ko Instrukzioa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, Covid-19aren osasun-krisiaren ondorioz harturiko neurriak kentzeari buruzkoa.





ostean bizitako salbuespenezko egoeraren berezko zailtasunekin loturikoak dira. Era berean, adierazi du ez dagoela ados Lanbidek etxebizitzaren banaketa eta bertan erroldatutako pertsona desberdinek etxeari ematen dioten erabilpena azaltzeko eskatu izanarekin, bera logela baten azpierreteria besterik ez baita; azkenik, bere errekurtsoarekin batera, etxeko kide guztien erroldatze-ziurtagiri bat ere aurkeztu du, bai eta bertan erroldatuta dauden arren kexagileak ezagutzen ez zituen pertsonen zerrenda bat ere.

2-. Espedientean jasotzen den dokumentaziotik ondorioztatzen denaren arabera, kontrakoa egiaztatu ez bada Lanbidek igorritako txostenean, kexagileak Jabetza-erregistroko Ohar Soila aurkeztu zuen 2020ko ekainaren 22an. Une horretan bertan, jakinarazi duenez, etxebizitzaren banaketa eta gela bakoitzaren erabilera zehaztu zituen.

Hori izan zen entzunaldi-izapideari emandako erantzuna eta Lanbidek 2020ko apirilean (alarma-egoera bete-betean) bidalitako dokumentazioa.

Arartekoaren ustez, administrazio guztiek kontuan izan beharko lukete herritar guztiok ditugun zailtasun itzelak, bizi dugun salbuespenezko osasun-krisia dela eta. Egoera horrek funtsezko aldaketa bat eragin du administrazioarekin harremanetan jartzeko moduari dagokionez. Edonola ere, Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 73.3 artikulua arabera: "Aurreko zenbakietan xedatutakoa betetzen ez duten interesdunek dagokion izapiderako eskubidea galdu dutela deklaratu da. Hala ere, interesdunaren jarduketa onartuko da, eta legezko ondorioak izango ditu, baldin eta epea iragantzat jotzen den ebazpena jakinarazten den eguna baino lehen edo egun horren barruan gertatzen bada⁵".

Arartekoak arrakala digitalarekin loturiko hainbat kexa jaso zituen, eta horiek Arartekoaren 2020ko azaroaren 5eko 4/2020 Gomendio Orokorrean aztertu ziren. *Herritarrenganako arreta indartzeko beharra, administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean kalteak saihesteko eta bazterkeria digitalaren kontra borrokatzeko neurriak hartzeko larrialdi egoeretan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeretan, besteak beste.*⁶

Egoera horrek kolektibo jakin batzuei eragin die eta eragiten die, izan ere, horiek, inguruabar jakin batzuk direla eta (esate baterako, ekonomia- eta

⁵ Azpimarratutakoa gurea da.

⁶ Hemen eskuragarri: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/3_5057_1.pdf



gizarte-bazterketa, hizkuntza-oztopoak, adina, edo orokorrean, teknologia berriak erabiltzeko gaitasun eskasa), modu nabarmenagoan hauteman zituzten administrazioaren zerbitzuetara jotzeko eragozpenak.

Hori dela eta, indarrean dagoen araudia hain zorrozki interpretatzearen ondorioz familientzako berez zaila den gaur egungo egoerak okerrera egin dezala saihesteko xedearekin, erakunde honek azpimarratu du komenigarria dela herritarrek administrazioarekin duten harremani dagokienegiz egiten dituzten jarduketa desberdinen inguruko irakurketa malguago bat egitea.

Eteteko ebazpenaren aurreko entzunaldi izapidea, Lanbideren txostenaren arabera, 2020ko apirilaren 20an bidali zen. Kexagileak errekerimendu horri erantzun zion ekainaren 22an. Data horren aurreko 2 hilabete eta erditan – 2020ko martxoaren 14tik urte bereko ekainaren 1era arte– Lanbideren bulegoak publikoari itxita egon ziren. Izapideak egiteko eta dokumentazioa telematikoki (Lanbideren webgunearen bidez) aurkezteko aukera zegoen arren, garrantzitsua da gogoraraztea administrazio publikoekin harremanetan telematikoki jartzeko aukera administratuen eskubide gisa jasotzen dela araudian, eta ez betebehar gisa. Hala ondorioztatzen da Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 13. artikuluan, zeinaren arabera erabiltzaileek eskubidea baitute: *a) Administrazio publikoekin komunikatzeko, Administrazioaren Irispide Puntu Elektronikoko Orokor baten bidez. (...)*”

Edonola ere, Lanbideren bulegoetan aurrez aurreko arreta berrabiarazi zenean, 2020ko ekainaren 1ean, kexagileak ez zuen eskaturiko dokumentazioa, izan ere, ezin izan zuen eskuratu 2020ko ekainaren 21era arte; egun horretan artatu zuten Jabetzaren Erregistroan. Interesdunak azaldu du bere errekurtsioan dokumentu hori lortu bezain pronto, ekainaren 22an, kopia bat aurkeztu zuela Lanbideren bere bulegoan –2020/153633 erregistroa–.

Lanbidek erakunde honen informazio-eskaerari erantzunez bidalitako txostenaren arabera, kexagileak ez zuen aurkeztu epearen barruan erroldatze-ziurtagiria, espedientean jasotzen dena urriaren 20koa baita. Nolanahi ere, kexagileak bere kexa-idatziarekin batera aurkeztu duen dokumentaziotik ondorioztatzen da ziurtagiri bat aurkeztu zuela aukerako berraztertze errekurtsioarekin batera. Era berean, errekurtsio horretan aipatu zuen 2019ko urrian (etxebizitza honetara joan zenean bizitzera) dagoeneko aurkeztu zuela erroldatze-ziurtagiri kolektiboa eta berriro eskatu zitzaizkion 2019ko abenduan, prestazioak berritzeko bere eskaeraren testuinguruan –2019/368790





erregistro-zenbakidun eskaera eta 2019/368963 erregistro-zenbakidun dokumentazio-hedapena, biak 2019ko abenduaren 13koak—.

Era berean, erakunde honen ustez, Lanbidek kontuan izan behar du irailaren 9ko aukerako berraztertzeko errekurtsuari erantsi zaion dokumentazioa. Hori bat dator Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren jarrerarekin; 2010eko martxoaren 17ko 1228/2010⁷ Epaian islatua. Horren bidez, aitortu zen mota guztietako elementuak, egitateak edo dokumentuak gehitzeko zilegitasuna, baldin eta horrekin interes orokorrak hobeto bermatzen dituen erabaki bat hartzea ahalbidetzen den.

Hori horrela, epai horren seigarren oinarri juridikoan, auzitegiak honako hau zehazten du:

“En la resolución judicial recurrida se sostiene una tesis errónea sobre la función de los recursos administrativos, a resultas de la cual no cabría introducir en éstos “elementos nuevos” sobre los que no hubiera podido pronunciarse el órgano que dictó la resolución impugnada.

Es errónea la tesis, decimos, y parte de una concepción no aceptable del “carácter revisor” de los recursos administrativos que difiere de la que preside los artículos 107 a 119 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. En contra de lo afirmado por la resolución que examinamos, es lícito introducir en los recursos de alzada o de reposición hechos, elementos o documentos nuevos, no recogidos en el expediente originario. La posibilidad está expresamente prevista en el artículo 112.1 de la Ley 30/1992 (e implícita asimismo en el apartado tercero del artículo 113) y es coherente, por lo demás, con la función propia de estos mecanismos de revisión de la actividad administrativa.

Los recursos administrativos, además de garantía para los administrados, son también un instrumento de control interno de la actividad de la Administración en la que un órgano superior -o el mismo, en reposición- revisa en toda su extensión lo hecho por otro, sin estar necesariamente vinculado al análisis de los meros elementos de hecho o derecho que este último hubiera tenido o podido tener en cuenta. Lo que se pretende con los recursos es posibilitar una mejor decisión que sirva con objetividad los

⁷ ECLI:ES:TS:2010:1228.

Hemen eskuragarri:

<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/7aa2eb783af8ffdf/20100331>





intereses generales, y ello será tanto más factible cuantos más elementos de juicio se pongan a disposición de quien ha de decidir finalmente sobre la impugnación.

El órgano que resuelve el recurso no está constreñido por los solos datos presentes en la resolución originaria. Tras el acuerdo inicial pueden alegarse en vía de recurso administrativo hechos, elementos o documentos de todo tipo, también los de fecha posterior a aquél, si de ellos se deducen consecuencias jurídicas relevantes para la mejor resolución del expediente. El recurso administrativo, salvados los límites de la congruencia y la imposibilidad de gravar la situación inicial del recurrente (artículo 113 in fine de la Ley 30/1992), permite una reconsideración plena, sin restricciones, del asunto sujeto a revisión. Reconsideración en la que, insistimos, pueden alegar los impugnantes cualesquiera hechos o elementos de juicio, también los que no se pudieron tener en cuenta originariamente pero sean relevantes para la decisión final.”⁸

Hortaz, Auzitegi Gorenak ondorioztatu egin du “elementu berriak” gehitzeko aukerak Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen Legean daukala araudi-babesa. Are zehatzago, uste du “beren-beregi aurreikusita” dagoela aurreko 30/1992 Legearen 112. artikuluan, gaur egun Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 118.1 artikularen⁹ lehenengo paragrafoak jasotzen duena. Beraz, adostasun-printzipioa bermatuta eta kexagilearen egoera okertzea ezinezkoa denez, errekurtsua ezagutzen duen organoak espedientean zehar sortzen diren kontu guztiak ebatzi beharko ditu, interesdunak horiek alegatu dituen edo ez gorabehera.

llo horretatik, era berean, egokitzen jotzen da Auzitegi Gorenaren 2017ko apirilaren 20ko 1509/2017 Epaia¹⁰ aipatzea. Horren bidez, Auzitegi Gorenak, 2010eko otsailaren 11ko ebazpenetan ezarritako doktrina hartuta oinarri gisa, laugarren oinarri juridikoan, honako hau ondorioztatu du irmoki: “por lo tanto asistía la razón a la parte recurrente en este caso para que la documentación acompañada con su escrito de interposición al recurso de reposición fuese valorada y tomada en cuenta a la hora de resolverse en vía administrativa, sin que su aportación en dicho momento fuese obstáculo insalvable para hacerlo.

⁸ Azpimarratutakoa gurea da.

⁹ 118.1. artikulua honako hau dio bere lehen paragrafoan: “Jatorrizko espedientean jaso ez diren beste egitate edo dokumentu batzuk hartu behar badira kontuan, haien berri emango zaie interesdunei, gutxienez hamar egun eta gehienez hamabost iraungo duen epe batean alegazioak egin eta egoki deritzoten dokumentu eta egiaztagiria aurkez ditzaten”.

¹⁰ ECLI:ES:TS:2017:1509. Hemen eskuragarri:

<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/feb4fdfa1ea3a9e6/20170428>



(...) si en vía económico-administrativa y en vía judicial es posible aportar la documentación que el actor estime procedente para impugnar una resolución tributaria, parece mucho más lógico que pueda hacerse antes en el discurrir procedimental y aportarse en el primero de los medios de impugnación que pueden ejercitarse".

3-. Era berean, kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen 2020ko irailaren 9an, eta, Arartekoaren ebazpen hau bidali den egunean, oraindik ebatzi gabe dago. Hortaz, Lanbidek ez zuen bete Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 124. artikuluan horretarako ezartzen zen epea.

Illo horretatik, aukerako berraztertze errekurtso bat txertatzen den kexa-espeditenteen izapidetzean daukagun esperientziatik abiatuta egiaztatu ahal izan da gaur egun errekurtsoak ebazteko epeek ez dutela jarraitzen hobekuntza-bidea, seguru aski, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu duten pertsona gehiago daudelako eta osasun-pandemiaren ondoriozko krisi ekonomikoaren testuinguru honetan errekurtso gehiago aurkeztu direlako.

Edonola ere, uste da beharrezkoa dela ebazteko epea murriztea eta administrazio-prozeduraren araudi orokorrean aurreikusitakora egokitzea.

4-. Enplegu erakunde autonomoak eskatzen duen dokumentazioari buruz (etxeko gelen banaketari, gela-kopuruari, etxean erroldatutako pertsonen eta bizikidetzaren bakoitzaren zehaztapenari dagokiona), erakunde honek zenbait gogoeta bidali ditu alde aurretik antzeko ezaugarriak dituzten beste espeditente batzuetan¹¹.

Kasu honetan, besteetan bezala, enplegu erakunde autonomoak ez du zehaztu eteteko ebazpenean zer legezko arau edo betekizun zehatz ez den betetzen etxebizitza horretako erroldan izena emandako pertsona kopurua gela kopurua baino handiagoa bada. Lanbidek, era berean, ez du aipatu lege-arau espezifikoak Arartekoari zuzendutako txostenean.

Arartekoaren ustez, etxebizitza horretako erroldan izena emandako pertsona kopurua gela kopurua baino handiagoa izateak irregulartasunen bat egon

¹¹ Ikusi, adibidez, Arartekoaren 2018S-2785-17 Ebazpena, 2018ko ekainaren 21ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki zitzaion berriz azter zezala pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria atzera botatzeko erabakia. Hemen eskuragarri: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4568_3.pdf



daitekeela adieraz dezakeen arren, hori ez da inolako oztopoa administrazioak betekizunak betetzen diren egiaztatzeko jarduketak egin ditzan. Nolanahi ere, etxebizitza bereko erroldan izena emandako pertsona-kopurua gela-kopurua baino handiagoa dela egiaztatu izana, beste inolako egiaztapen edo ikerketarik egin gabe, ez da behar bezain bermatzailea eskaera bat etetea edo ukatzea edo eskaeran atzera egin duela adieraztea.

Aldiz, kasu honetan, Lanbidek ondorioztatu du etxebizitzan beste pertsona batzuk erroldatuta izateak betebeharrak ez betetzea dakarrela, eta ez du beste ikerketarik egin eta ez ditu onartu kexagileak bere bizikidetzaren unitatearen osakeraren inguruan egindako alegazioak.

Erakunde honen ustez, garrantzitsua da kontuan izate kexagileak pertsona bakarrek bizikidetzaren unitatea osatzen duela eta, aldi berean, logela bat azpialokatzen duela; hortaz, etxebizitzako gela desberdinen antolaketa eta kudeaketa bere erabakitzeko esparrutik kanpo geratzen dira.

5-. Ondorio gisa, Arartekoaren iritziz, Lanbidek dokumentazio-errekerimendu bat bidali du, baina ez du legezko babes nahikorik diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortu edo mantentzeko bete behar dituen baldintzei dagokienez. Nahiz eta bizikidetzaren unitatearen osaketa titular bakoitzak egiaztatu dezakeen eta egiaztatu behar duen, etxe bateko gela eta bertan erroldatutako pertsonen banaketa logela baten azpierreteatzailea besterik ez den pertsonaren erabakitzeko esparrutik kanpo geratzen diren datuak dira. Bestalde, berrikusteko prozedura ebatzi aurretik dokumentazioa aurkeztuta, eta aukerako berraztertzearen errekurtsoarekin batera, ondorioztatu daiteke kexagilearen eginbidea eskatutakoa izan dela, eta Lanbidek beharrezko informazioa izan duela bere aldetik baldintzak betetzen dituen baloratzeko.

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan agindutakoaren arabera, honako gomendio hau egiten zaio Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari

GOMENDIOA

Arartekoak Lanbideri gomendatzen dio, aurreko gogoetak kontuan hartuta, berrikus dezala kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako





gastuak osatzeko prestazioa eteten dituen ebazpena, horrek dakartzan ondorio ekonomikoekin.

